

INFLAZIOA

Argindarraren garestitzeak KPIa gorarazi zuen otsailean

KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasa




Azken bi hilekoetan, kontsumoko prezioen indizeak joan-etorriko mugimendua marraztu du bere urte arteko bilakaeran. Izan ere, urtarrilean sei hamarren jaitsi zen, %0,5era arte, eta otsailean bost hamarren igo zen, %1,0ra arte. Aldakuntza horien jatorria argindarraren prezioan dago, urte hasieran merkatu baitzen eta otsailean, berriz, garestitu, hotzagatik eta eskariaren igoeragatik.

KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2016	2017	2018ko otsaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	0,0	2,0	1,0	1,0
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,9	1,1	1,0	0,8
- Elikagai landuak (%14,1)	0,9	0,0	1,1	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	-0,1	0,0
- Zerbitzuak (%43,2)	1,1	1,7	1,6	0,7
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,2	6,5	1,0	0,2
- Landu gabeko janariak (%7,6)	2,6	3,7	0,6	0,1
- Energia (%10,6)	-8,2	8,2	1,3	0,1


Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



Lehenengo aldiz hainbat urtetan, energiaren osagaiak ez du nabarmentzeko moduko eraginik izan indize orokorraren datuan eta bai azpiko inflazioa bai hondar inflazioa %1,0 hazi ziren otsailean. Petrolioaren salneurria dolarretan neurtuta izaten ari den garestitzea europar diruaren balio irabaziak konpentsatu du.

Produktu taldeka, komunikazioetan (%2,4) bakarrik hauteman dira goranzko tentsioak, telefoniako paketeen garestitzearen ondorioz. Beste muturrean, etxerako tresnen prezioak (%-0,1) eta aisia eta kulturarenak (%-0,5) 2017ko otsailean zeudenak baino merkeagoak dira. Eurogunearekin erkatuta, ez dago alderik KPIaren gehikuntza erritmoan, baina talde batzuetan (hezkuntza, komunikazioetan, eta edari alkoholodunak eta tabakoan) kontrako bilakaera hautematen da.

KPIaren talde nagusiak
Urte arteko aldakuntza tasak. 2018ko otsaila

	Euskadi	Espainia	Euro gunea
INDIZE OROKORRA	1,0	1,1	1,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	0,9	0,9	0,6
Edari alkoholodunak eta tabakoa	1,5	1,4	2,9
Jantziak eta oinetakoak	0,6	0,6	0,5
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	1,3	1,4	1,7
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	-0,1	0,0	0,3
Medikuntza	0,1	0,2	0,9
Garraioa	1,1	1,1	1,5
Komunikazioak	2,4	2,3	-1,2
Aisia eta kultura	-0,5	0,6	0,9
Hezkuntza	1,0	0,7	-2,1
Jatetxeak eta hotelak	1,7	2,1	1,9
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,6	0,8	1,2